BertsoBOT: lehen urratsak

Egilea: Manex Agirrezabal Zabaleta
Tutoreak: Iñaki Alegria, Bertol Arrieta
Kolaboratzailea: Aitzol Astigarraga

HIZKUNTZAREN AZTERKETA ETA PROZESAMENDUA

Hizkuntzaren Azterketa eta Prozesamendua Masterreko titulua lortzeko bukaerako proiektua

2012ko iraila

Sailak: Lengoaia eta Sistema Informatikoak, Konputagailuen Arkitektura eta Teknologia, Konputazio Zientziak eta Adimen Artifiziala, Euskal Filologia, Elektronika eta Telekomunikazioak.

Laburpena

Hizkuntzaren prozesamenduko teknikak erabilita, poesia-sorkuntza automatikoan lehen urratsak eman dira. Hau erdiesteko, corpusen prozesamenduan oinarritutako bilaketak erabili dira, bai bilaketa arruntak eta baita bilaketa semantiko aurreratuak ere, horretarako IXA taldean garatutako tresna ezberdinak erabiliaz. Hizkuntza poetikoko testuek, gramatikaltasun eta metrika hertsitik haratago, semantika eta pragmatika barneratuta dituzte. Lan honetan semantikaren auziari heldu zaio nagusiki.

Abstract

In this text, I present the first steps in computatinal linguistics, to allow the automatic generation of poetry. In order to achieve it, different corpora search techniques have been used, from simple string-match searches, to advanced semantic searches, using different tools developed by the IXA group. Poetic language is more than simple metrics and gramaticality, as it has plenty of semantical and pragmatical information. In this work we focused on semantics.

Gaien aurkibidea

Irudien zerrenda

1 Proiektuaren nondik norakoak

Hizkuntzaren Azterketa eta Prozesamendua masterraren baitan, corpusen prozesamenduan eta informazioaren berreskurapenean oinarrituta, bertsoak automatikoki sortzeko lana egin dugu. Helburu hau lortzeko bidean, hainbat teknika erabili ditugu: informazio-berreskurapena, corpusen prozesamendua, silabizazioa, ...

Proiektu honen aurrekari nagusiak BertsolarIxa web-aplikazioa (Arrieta et al., 2001) eta *Bertsotarako Arbel Digitala* (Agirrezabal et al., 2012a) dira. Lehenengoan errima-bilatzaile bat garatu zen euskararen morfologia nolabait alderantzikatuz. Arbel digitalaren proiektuan, berriz, bertsoaren egiturari dagozkion ezaugarriak tratatu genituen (errima- eta sinonimo-bilatzailea, errima-egiaztatzailea ...).

Lan honetan, bestalde, **bilatzaile semantiko** bat garatu dugu, hainbat atazatarako baliagarri izango zaiguna. Horretaz aparte, aurretik PHP lengoaiaz garatutako tresna batzuk, **egoera finituko teknologia erabilita berrinplementatu** ditugu (Agirrezabal et al., 2012b). Azken lan hau Donostian burututako FSMNLP[1] bilkuran aurkeztu genuen eta arbel digitalean txertatzear daukagu. Gainera, poesia- edo **bertso-sorkuntza automatikoaren inguruan lehen pausoak** eman ditugu, IXA taldean garatutako baliabide ezberdinak erabilita.

Lan hauek beste eremu batzuetako taldeen lanekin uztartu ditugu, hala nola, *Robotika eta Sistema Autonomoak*[2] eta *Aholab Signal Processing Laboratory*[3] taldeekin. Elkarlan honen ondorioz, 2012ko apirilean robot bat bertsotan jartzea[4] lortu zen.

Egin dugun lanean, sistema informatikoa hainbat ariketa ebazteko gai izan da corpusetan eta corpus horien gaineko bilaketetan oinarrituta:

- Bertso klasiko bat abestu
- Lau oinak emanda bertsoa abestu
- Hitz bat emanda bertsoa abestu
- Gai librean bertso bat abestu

Aipatutako aurrekarietan hitzen formari soilik heldu zitzaion, baina hauetatik haratago, bertsolari batek gramatikaltasuna, pragmatika eta munduari buruzko jakinduria izan ohi du. Etorkizunean bide hauek jorratu beharko dira, eta horretarako beharrezkoa izango da proiektu honetan sortutako bilatzaile semantikoa.

[1] Finite-State Methods and Natural Language Processing
[2] `http://www.sc.ehu.es/ccwrobot/`
[3] `http://aholab.ehu.es`
[4] `http://paperekoa.berria.info/plaza/2012-04-19/040/001/zientzia_fikzioa_bertsotan.htm`

Testu hau hainbat ataletan bereizi dugu. 2. atalean, irakurlea gai honetan murgiltzeko, artearen egoera zein den azaltzen da, orain arte eta gaur egun garatze-bidean dauden lanetan oinarrituta. Honen ondoren, eskura ditugun eta erabili ditugun baliabide batzuk aurkeztuko ditugu, modu laburrean. Gero, bertsolari-sistema osoaren arkitektura zein den plazaratuko da. Bilatzaile semantikoaren barrenak aztertu ondoren, goian aipatu ditugun ariketak nola burutzen dituen azaltzen da. Amaitzeko, gure sistemen ebaluazioa eta ondorioak erakutsi ondoren, etorkizunean jorratuko ditugun adarrak azalduko ditugu.

Bertsolaritza: jendaurreko ekintza soziala

Euskal Herrian bertsolaritza da ahozko literaturaren erakusgai behinena. Bertsolaritza ahozkotasunean eta bat-batekotasunean oinarritzen da, nahiz eta azken urteotan bertsolaritza idatziak nabarmen egin duen gora. Bertsolaritzaren inguruan asko idatzi bada ere (Gartzia et al., 2001), (Amuriza, 1981a) eta (Amuriza, 1981b) liburuak nabarmenduko nituzke. Aipatzekoa da baita 2011 urtean Asier Altunak zuzendutako "bertsolari" filma[5] [6].

Bertso bat zer den ulertzeko, Xabier Amurizak bertso batean emandako definizioa irakurtzea besterik ez dago:

Neurriz eta errimaz
kantatzea hitza
horra hor ze kirol mota
den bertsolaritza

Definizio horretan ikus daitekeen legez, bertsoa neurtuta eta errimatuta egiten den jardun kantatua da. Bertsotan, neurtzea esaten denean hiru elementuri egiten zaie erreferentzia: **lerro kopuruari**, lerro bakoitzeko **silaba kopuruari** eta lerro batzuek beste batzuekin **errimatu** egin behar izateari. Hona hemen adibide bat:

[5] `IMDB: http://www.imdb.com/title/tt2058583`
[6] `Trailer: http://vimeo.com/9355066`

Iparragirre abila dela (10)
askori diot aditzen (8)
eskola ona eta musika (10)
hori hoiekin zerbitzen (8)
ni ez nauzu ibiltzen (7)
kantuz dirua biltzen (7)
komediante moduan (8)
debalde festa preparatzen det (10)
gogua dedan orduan (8)

Xenpelarren bertso klasiko honetan argi ikusten da aurreko definizioaren funtsa. Aipatu beharra dago bertso honek darraien neurria zein den: bederatzikoa, handiaren moldekoa, sei puntuz. Honenbestez, bederatzi lerro izango ditu bertsoak eta handiaren moldekoa izatean, handien egituraren antzekoa izango du (lehen lau lerroek eta azken biek bat-egiten dute handien silaba-egiturarekin)[7]. Gainera, sei lerrotan agertuko zaigu errimatzeko beharra; kasu honetan, bi errimako multzoak daude (A eta B): 2, 4, 5 eta 6. lerroek elkarrekin errimatzen dute (A) eta 7. eta 9.ak ere bai (B). Errima-patroiak gorriz eta urdinez markatuta daude. Horretaz aparte, lerro bakoitzeko silaba-kopurua ere neurriak zehazten du (kolore berdearekin adierazia).

Neurri egitura hau, bertso-saio eta ekitaldietan ohikoa da. Hala izan zen, adibidez, 2011 urtean Gipuzkoan jokatu zen **Gpuntua** txapelketan, izan ere, ariketa batean neurri hori, eta espreski Xenpelarren bertso honen doinua, erabili behar izan zuten. Bertsotarako neurrien inguruan irakurri nahiz gero, gomendagarria da (elkarteko ikerkuntza taldea, 2009) liburua.

Neurri batek ezarritako mugak, lehen adierazi bezala, maila konputazionalean tratatu ditugu arbel digitalaren proiektuaren baitan. Bertan, silaba-kontatzaile bat ezarri genuen, horrela bertso bateko lerroak idatzi eta berehala, silaba kopuruak ea egokiak zirenentz adierazten zuen aplikazioak. Gainera, errima-bilatzaile bat jarri genion, euskararen morfologiaren deskribapenean (Alegria et al., 1996) oinarrituz, eta emaitzetan agertuko ziren hitzek gehienez bi atzizki izango zituztelarik. Azkenik, Euskal WordNet-en (Pociello, 2008) oinarrituta, sinonimo-bilatzaile bat ere txertatu genuen.

Baina bertsolaritza, ahozkotasunean oinarritzen den jendaurreko ekintza da. Beraz, ez da nahikoa izango bertsoak sortzea, sortutako poema horri *performance* bat gehitu beharko zaio. Horretarako, bertsoak sortzeko lanari beste lan batzuk gehitu behar izan zaizkio, hala nola, robot itxurako gorputz fisiko bat eta ahots sintetizatu bat.

[7]Neurri handietan lerro bakoitiek 10 silaba izaten dituzte eta bikoitiek 8

2 Artearen egoera

Poesia-sorkuntza automatikoaren inguruan hainbat lan egin dira urte hauetan. Horietariko askok ikasketa automatikoa (IA) baliatzen dute. Teknika estatistikoek hizkuntzaren prozesamenduan aurrerapauso handia suposatu dute, izan ere, automatizatzen lagundu dute duela gutxi arte eskuzkoa zen lana.

Bertsoak sortzerakoan bertsolaria ezin da metrikaz zuzenak diren esaldi soilak sortzera mugatu. Entzulea erakartzeko hainbat teknika erabili beharko ditu, hala nola, baliabide literarioak, txisteak ... Ikertzaile batzuk sormen konputazionalaren inguruan egindako lanek garrantzi handia izan dute.

Ondorengo ataletan, sorkuntza poetikoaren eta giza-sormenaren inguruan egin diren lan batzuk aipatzen dira:

2.1 Oulipo eta Alamo

Sorkuntza poetikoaren automatizazioaren garaia XX. mendean hasten da, informatikaren garapenarekin batera. Diziplina honen aitzindaritzat, idazle eta matematikari frantziarrak jotzen dira. Matematika, konbinatoria eta literatura bateratzeko bilkuren ondorio izan dira *Oulipo* eta *Alamo* bezalako taldeak.

Talde hauek, matematika eta literatura bateratzen dituzte poesia modu automatikoan sortzeko. Hainbat lan egin badituzte ere, nabarmenena edo ezagunena **Rimbaudelaires** da. Haien hitzetan, honen emaitzak ez dira ez *Rimbaud* eta ezta *Baudelaire*-en poesiak, bien arteko konbinazio bat baizik. Lehenik eta behin, *Rimbaud*-en poesia hartzen dute oinarritzat eta ondoren bertako izen, aditz eta adjektiboak *Baudelaire*-en testuetako hitzekin ordezkatzen dituzte.

2.2 Pablo Gervas

Mundu honetara jauzi egiten duen edonork, interneten bilaketa batzuk eginda, topo egingo du zientzialari honekin. Gervasek lan zerrenda handia dauka poesia sorkuntza konputazionalaren eremuan, eta hemen lan horietako bi aipatuko dira.

HAP masterra

2.2.1 WASP

Sistema honek (Gervás, 2000) sarrera gisa hitz zerrenda bat eta esaldi patroi batzuk emanda, poema multzo bat itzultzen du. Poema hauek. **Sortu eta test**[8] (*Generate & test*) metodoaz egiten du lan. Honen emaitzak metrikaren ikuspegitik perfektuak dira, baina ikuspegi linguistikotik, eskas samarrak eta zentzu gutxikoak. (Cañas eta Tardón, 2010) liburuan WASP erabilita sortutako poema baten adibidea agertzen da (gazteleraz):

Yunques ahumados
Sus muslos se me escapaban como
Peces sorprendidos
La mitad llenos de alas.
Con la sombra levanta
La arquitectura del humo
Un pie de mármol afirma
Su casto fulgor enjuto

2.2.2 ASPERA

Honek (Gervás, 2001) kasu bidezko arrazoitzearen[9] (*case-based reasoning*) metodoa erabiltzen du lan egiteko, eta NASAren *Clips* erregela-sisteman dago garatuta. Gervásen arabera, poesia-sorkuntzak bi pauso nagusi ditu: adierazi nahi den mezuaren sorkuntza eta mezu horren edertzea, baliabide ezberdinak erabilita. Bizitza errealean, pauso hauek batera egiten ditugu konturatu gabe, baina, Gervásen iritziz, soilik bigarrena da konputazionalki garatu daitekeena. Sistema hau gai da, mezu arrunt batetik abiatuta, mezu poetiko bat lortzeko. Honako datuak eman behar zaizkio sistemari poesia sortzeko: estilo poetikoan adierazi nahi dugun esaldia, poemak jarraitu beharreko egitura metrikoa, egitura metriko horrekin bat datozen kasu batzuk (hauek kasuen corpusean egon beharko dira) eta poeman erabili ahal izango liratekeen hitz solte batzuk. Bere lan-pausoak kasu bidezko arrazoitzearen urratsak dira:

- Lehenik eta behin, corpus batean mezu horrentzako ***case* berezitu bat berreskuratzen da** (*Case retrieval*), hau da, adierazi nahi den mezuaren antzeko esaldi bat bilatzen da.

[8] Sortu eta test: Problemak ebazteko metodo bat da. Metodo honen arabera, problemei soluzioak bilatzen zaizkie eta horiek probatu. Zuzenak ez diren kasuan, zuzenketa batzuk aplikatu eta berriro probatzen dira soluzioa topatu arte.

[9] Eranskinetan kasu bidezko arrazoitzearen teknikaren azalpen bat dago.

- Hau egin eta gero, aukeratu den *case* horren esaldi poetikoko POS[10] etiketen egitura jarraituta, hitz berriak jarrita, **esaldi berria sortzen da** (*CBR Reuse Step*), esaldi poetikoa, alegia.

- Sortzen den zirriborroa erabiltzaileari erakusten dio, hark **ebaluatu edo zuzentzeko** (*CBR Revise Step*).

- Amaitzeko, sortutako (eta kasu batzuetan zuzendutako) poema hau analizatu eta **corpusean txertatzen** du, gero lehen urratsean baliatzeko (*CBR Retain Step*).

Hau hobeto ulertzeko, Gervásen adibide batekin azalduko dugu. Suposa dezagun, poema bihurtu nahi dugun esaldia, gazteleraz, hau dela:

```
bebed los vasos de vino antes de que el camarero cierre
```

Esaldi honen hitzen kategoria morfosintaktikoa ateratzen da lehenik:

```
bebed/VLPM2P los/ARTDMP vasos/NCMP de/DET vino/NCMS antes/ADVT de/DET
```

```
que/CQUE el/ARTDMS camarero/NCMS cierre/VLPM2P
```

Gure esaldiaren antzekoak bilatzen dira kasuen corpusean, baina abstrakzio maila bat lortu ahal izateko, kategoria morfosintaktiko antzekoa[11] duten kasuak berreskuratzen dira. 1 irudian ageri den kasua berreskuratzen da; izan ere, bere POS etiketen zerrenda eta hasierako esaldiaren POS etiketen zerrenda oso antzekoak dira.

```
VLPM2P     ARTDMP NCMP DET        (NCMMS) ADVT DET CQUE ARTDMS NCMS VLPM2P

VLPM2P DET ARTDMP NCMP DET ARTDFS NCMFS   ADVT DET CQUE ARTDMS NCMS VLPM2P
```

Beraz, kasua berreskuratu da. Kasua berreskuratzean poemaren bukaerako egitura morfosintaktikoa definituta gelditzen da. Honen ondoren, POS etiketen lekuan beharrezko hitzak jarri beharko ditugu, horretarako hasieran aipatutako hitz solteen zerrenda erabiliko dugu. 2 irudian dago ikusgai hitz zerrenda hori.

Behin hitzak jarrita, berrikuspen atalerako ordua da. Sistemak itzuliko zukeen poema 3 irudian ikus daiteke.

[10] *Part-Of-Speech*, kategoria morfosintaktikoa

[11] Oraingoz soilik egitura-antzekotasuna neurtzen du. Intentzioa dute antzekotasun semantikoarekin lan egiteko.

```
(case (n acmamq) (beg nil) (end nil)
  (wordsProse
    disfrutad de los placeres de la juventud
    antes de que el tiempo pase)
  (POStagsProse
    VLPM2P DET ARTDMP NCMP DET ARTDFS NCMFS
    ADVT DET CQUE ARTDMS NCMS VLPM2P)
  (wordsPoetry
    *line*
    coged de vuestra alegre primavera
    *line*
    el dulce fruto antes que el tiempo airado
    *line*
    cubra de nieve la hermosa cumbre
    *line*)
  (POStagsPoetry
    *line*
    VLPM2P DET ADJPOSFS ADJGFS NCFS
    *line*
    ARTDMS ADJGFS NCMS ADVT CQUE ARTDMS NCMS ADJGMS
    *line*
    VLPS3S DET NCFS ARTDFS ADJGFS NCFS
    *line*)
)
```

1 irudia: ASPERAko errepresentazio paraleloaren adibidea

```
(vocabulary
  tomad      embriagadora  ba_quica
  to_nica    bebida        rojo
  ganimedes  mesonero      hostelero
  posadero   hombre        feo
  ciegue     ira           divina     fuente
)
```

2 irudia: ASPERArako poesiak osatzeko hitz-zerrenda

HAP masterra

```
(sample_output
tomad de vuestra ba_quica bebida
el rojo vino antes que el hombre feo
ciegue de ira la divina fuente )
```

3 irudia: ASPERAk sortutako esaldi poetikoa

2.3 Poevolve

Sistema honen (Levy, 2001) oinarria sare neuronalak dira. Bere oinarrian bilakaera-algoritmoak erabiltzen ditu, bere izenak argi adierazten duen bezala (*[Poe]try + [evolve]*). Honen egileak sormen konputazionalean aurrerapausoak eman nahi zituen, eta horretarako poesia-sorkuntza automatikoari ekin zion. *Poevolve* sistemak, hasiera batetan, *limerick*[12] motako poemak sortzen zituen. Sare neuronalak erabilita, harrigarria dirudien arren, hainbat poema sortu ondoren, benetako sormena duela esaten du bere lanean. Poemak sortu ahala, sistemak poema hobeak egiten ikasten du. *Limerick*-ez aparte, beste poesia egitura batzuekin ere lan egin du. 4 irudian, *poevolve* erabilita automatikoki sortutako *haiku*[13] bat ageri da, ingelesez:

klutz break spelled died be
goat Jake hot helped spelled truck lines
chair taste nan chair me

4 irudia: Poevolve-n sortutako *haiku* bat

2.4 Ruli Manurung

Manurung-ek poesia sortu nahi izan zuen automatikoki. Horretarako, artearen egoeran zeuden lanak aztertu eta poema batek beharrezko zituen hiru ezaugarri zerrendatu zituen: esanahia (*meaningfulness*), gramatikaltasuna (*grammaticality*) eta poetikotasuna (*poeticness*).

Bere esanetan, bestelako lanetan ezaugarri horietako azpimultzo bat soilik betetzen zen, baina ez hiru ezaugarriak. Beraz, hori ebazteko McGonagall sistema garatu zuen (Manurung, 2003). Bere oinarrian, Poevolve-n bezala, bilakaera-algoritmoak erabiltzen ditu, baina bi lan hauek modu independentean garatu direla esaten du.

[12]Limerick: Poema bat da limerick bat, umoretsua, burutazio argi bat edota zentzu gabeko zerbait izan daitekeena. 5 lerroz osatuta daude eta errima-egitura oso zorrotza daukate (AABBA).

[13]Haiku: Japonierazko poesia mota tradizionala da, 5-7-5 silabako lerroetan antolatutako 17 silabek osatua. Deskribapen objektiboa egiten dute haiku idazleek beren lanetan, baina irakurlearengan zirrarak eragitea izaten da deskribapen horren azken helburua.

2.5 Kim Binsted

Kim Binsted-ek umore konputazionalaren inguruan garatu zuen JAPE (Binsted, 1996), txisteen sorkuntzarako eta analisirako makina (*Joke Analysis and Production Engine*).

Tesi honetan, Binsted-ek lan handia egin zuen baliabide literarioekin, adibidez, aliterazio eta errimekin. Txisteak sortzeko, hitzen ahoskeran eta sinonimoetan oinarritzen ziren, horretarako WordNet datu-base lexikala erabilita.

2.6 Oliviero Stock eta Carlo Strapparava

Aipatzekoak dira bikote honek sormen konputazionalean eta emozioekin eginiko lanak. Haien lan ezagunenetako bat Hahacronym (Stock eta Strapparava, 2005) da. Honek akronimo bat jaso eta haren bertsio umoretsua itzultzen du, multzo semantiko kontrajarrietako hitzak erabiliz (WordNet bezalako baliabideetan oinarrituta).

Adibidez, akronimo batek erlijioaren inguruko hitzen bat badauka, hori sexu edo teknologiaren inguruko hitz batekin ordezkatzen du. Hori bai, hitz berriaren lehen letra berdina izan beharko da, akronimoak berdina izaten jarrai dezan. FBI siglek *Federal Bureau of Investigation* esan nahi dute. Hahacronym lanak, honako hau proposatzen du: *Fantastic Bureau of Intimidation*.

2.7 Graeme Ritchie eta Judith Masthoff

Graeme Ritchiek umore konputazionalaren inguruan lan asko garatu ditu. Bere lan aipagarrienetako bat, beste batzuen artean, Binsted eta Manurung-ekin batera sortutakoa, STANDUP asmakizun sortzaile automatikoa[14] da. Programa honen oinarria, Binsted-en tesian dago. 1997an Kim Binsted, Helen Pain eta Ritchie-k egindako azterketa batean, JAPE programarekin sortutako testuak umeentzako onargarriak liratekeen asmakizunak zirela ondorioztatu zuten. 2003tik 2007ra Manurung-ek ideia hauek hartu zituen oinarritzat eta JAPE berrinplementatu zuen, Java programazio lengoaia erabilita. Honela, hizkuntzaren jolastoki bat (Waller et al., 2009) sortu nahi izan zuen, komunikazio-zailtasunak zituzten umeentzako.

[14] `http://www.abdn.ac.uk/jokingcomputer/home.shtml`

3 Eskura ditugun baliabideak

Atal honetan, gure lanetarako baliagarriak izan diren baliabideak zerrendatu eta azalduko ditugu.

3.1 Hizkuntzalaritza konputazionalaren inguruko lanak

Bertsolaritzaren inguruan lan asko egin diren arren, atal honetan, hizkuntzalaritza konputazionalarekin erlazionatutako lan batzuk ere nabarmenduko ditugu. Gehienbat, euskara edo bertsolaritzarekin erlazionatutako lanak agertuko dira, baina kasu batzuetan, lan eleanitzak ere aipatuko ditugu.

3.1.1 Euskararen deskribapen morfologikoa eta honen *foma* bertsioa

Lan honetan (Alegria et al., 1996), euskararen morfologia deskribatzen da egoera finituko teknologia erabilita, Xerox-en (Beesley eta Karttunen, 2003) tresnekin. Aurrerago *foma* (automatak eta transduktoreak konpilatzeko tresna ireki bat) garatu zuen Mans Huldenek (Hulden, 2009) eta hau erabilita, euskararen deskribapen morfologikoa *foma* formalismora pasatu zuten (Alegria et al., 2010).

Honi esker garatutako lanik garrantzitsuenetarikoa, Xuxen[15], euskararako zuzentzaile ortografikoa (Agirre et al., 1992) izango litzateke. Honetan oinarritzen da lan honetan erabili dugun errima-bilatzailea ere, "bertsotarako arbel digitala" proiektuaren baitan garatua.

3.1.2 BertsolarIxa

Euskarazko lehen errima-bilatzaile informatikoa[16] (Arrieta et al., 2001). Esan daiteke honekin eman zirela bertsolaritza eta hizkuntzalaritza-konputazionala biltzen zituen lehen urratsak. Bere oinarrian atzekoz aurrerako sorkuntza morfologikoa erabiltzen du, egoera finituko teknologietan oinarrituta. Atzekoz aurrerako sorkuntza morfologikoa egiteko, euskararen deskribapen morfologikoa alderantzikatu behar izan zen. Gainera, errimak bilatzerakoan, emaitzak multzokatu egiten ditu. Adibidez, "ena"-rekin errimatzen duten hitzak bilatuz gero, "pena" eta "eskema" bezalako hitzak itzultzen ditu. Baina gainera, gai da ["adjektibo" + "ena"] motako emaitzak itzultzeko. Honen lehen bertsioa Bertol Arrietak garatu zuen, eta gero, Oihan Odriozolak hobetu egin zuen.

[15] `http://www.xuxen.com`
[16] `ixa2.si.ehu.es/bertsolarixa/nagusia.html`



5 irudia: BertsolarIxa web-aplikazioaren interfazea

3.1.3 Bertsolaritzaren datu-basea

Xenpelar Dokumentazio Zentroak bertsolaritzarekin erlazionatutako orotariko materialaren bilketa eta katalogazioan egin du lan[17]. Ondorengo azpiatalean dagoen "Bertsotarako arbel digitala" proiekturako berebiziko garrantzia izan du, izan ere, haiek dute katalogatuta Joanito Dorronsorok bildutako bertso-doinutegiaren (Dorronsoro, 1995) bertsio digitala. Doinutegiaz gainera, bilduta dauzkate bertsolari txapelketa nagusietako bertsoen transkripzioak, eta bertsoen sorkuntzarako giltzarri izan dira hauek.

3.1.4 Bertsotarako arbel digitala

BertsolarIxa-ren inguruko hariei tiraka, Aitzol Astigarragaren ideia batean oinarrituta sortutako web-aplikazioa (Agirrezabal, 2011). Bertsotan ikasteko balio du eta bertsotarako ohiko neurri eta doinuak barneratuta dauzka, Xenpelar Dokumentazio Zentroaren eskutik.

[17] `http://bdb.bertsozale.com`



6 irudia: Bertsolaritzaren datu-basea

Tresna honek, gainera, silaba-kontatzaile bat, errima-bilatzaile bat, errima-egiaztatzaile bat eta sinonimo-bilatzaile bat ditu bere baitan.

Une honetan, arbel digitala bertso-eskolentzat eskuragarri jartzeko prozesuan gabiltza. Tresna baliagarria izango da hezkuntza inguruneetan, batez ere bertsolaritzaren transmisiorako. Gainera, etorkizunean hainbat modulu hobetzeko intentzioa dago: hala nola, arbelean idatzitako bertso bateko izenak, adjektiboak ... aztertuta, doinua automatikoki esleituko duen doinu-asignatzaile bat. 7 irudian web-interfazearen irudi bat dago ikusgarri.

Bertso-abeslaria

"Bertsotarako arbel digitala" proiektuaren baitan, bertsoa eta honen kantatzea uztartu ziren, honetarako *Aholab Signal Processing Laboratory*[18] ikertzaile taldearen inplikazioa berebizikoa izanik. Aholab taldeak, euskarazko ahotsaren tratamenduarekin egiten du lan, eta haien lanetako bat, euskarazko Text-To-Speech sistema baten garapena da (Hernaez

[18] `http://aholab.ehu.es`

7 irudia: Bertsotarako arbel digitalaren interfazea

et al., 2001). Bertsotarako doinuak erabilita, sistema honi (Erro et al., 2010) aldaketa batzuk egin eta makinak bertsoak abestea lortu da. Abesteko modulua web-zerbitzu gisa eskaintzea izan da proiektu honen barruan egin den ekarpen nagusia.

3.1.5 Informazioaren berreskurapena

Arantxa Otegik, 2012an, defendatutako doktorego-tesiaren (Otegi, 2012) ikerlerro nagusia informazio-berreskurapena izan da eta honi hedapen semantikoak egin diezaiokeen ekarpena. Bere emaitzak *Berbatek*[19] proiektuaren demoetan daude ikusgarri. Emaitza nagusia euskararako bilatzaile semantiko bat izan da, non behar den kasuetan hedapen semantikoa erabiltzen duen bilaketaren estaldura handitzeko (sinonimoak, hiperonimoak, hiponimoak ...). Oinarrian *mg4j* bilaketa-motorea erabiltzen du, bai bilaketak eta baita indexatzeak egiteko. Lan honetan oinarritu gara bertsoen bilatzaile semantikoa garatzeko.

3.1.6 Egoera finituko teknologia

Egoera finituko teknologia erabili da proiektu honetako lan batzuk garatzeko. Horretarako erabili dugun softwarea *foma*[20] (Hulden, 2009) da. *Foma* egoera finituko tresna multzo bat da, eta Lengoaia Naturalaren Prozesamenduan asko erabiltzen da, hala nola, analisi eta sorkuntza morfologikoan. Bereziki erabilgarria da morfologia aberatseko hizkuntzetan, adibidez, euskara.

[19] `http://www.berbatek.com`
[20] `http://foma.googlecode.com`

8 irudia: Bilatzaile semantikoaren demoaren interfaze nagusia

3.1.7 Egoera-finituko silabizazioa

Mans Huldenek 2006an egindako lanean (Hulden, 2006), egoera finituko teknologia erabilita, hitzen silabizazioa egiteko sistema bat garatu zuen[21]. Lan honen arabera, silaba bakoitza hiru zatiz osatua dago, *onset*, *nucleus* eta *coda*. Beraz, erregela ezberdinak erabilita, silaba bakoitzeko atalak hiru gelaxketako batean sartuta, hitzen silabizazioa egiten da. Lan honekin silaba-kontatzailea birprogramatu dugu. Honetarako, ingelesezko bertsioari aldaketa txiki batzuk egin behar izan dizkiogu euskararako baliagarria izateko. Orain artean, Aitzol Astigarragak *perl*-ez garatutako bat bageneukan, eta intentzioa dugu bien

[21] Silaba-banatzaile honen oinarrizko bertsioa `foma.googlecode.com` helbidean dago eskuragarri.

ebaluazio bat egiteko.

3.2 Robotikako lanak

Robotika eta Sistema Autonomoak taldearen[22] lanek ez dute hizkuntzalaritza konputazionalarekin zerikusi zuzenik, baina haiekin kolaboratu dugu proiektu honen barruan.

Talde honetan, robot mugikor eta autonomoekin egiten dute lan. Talde honen gogo eta lanari esker makinari gorputza jarri ahal izan diogu. Baina gorputz fisikoaz aparte, haien esperientzia mahai gainean jarri eta bertsolarien mugimenduak imitatu dituzte robotak erabilita.

Gure probetarako bi robot ezberdin erabili ditugu: Hurrenez hurren, *PeopleBot* eta *Pioneer* plataformadun Tartalo (Jauregi et al., 2007) eta Galtxagorri robotak (Lazkano, 2005).

[22] `http://sc.ehu.es/ccwrobot`

4 Sistemaren arkitektura eta diseinua

Atal honetan, robot-bertsolariaren hezurdura nagusia azalduko da, hau da, bere anatomia. Hau azaldu aurretik, sistemaren gorputzaren irudi bat ikustea lagungarri izan daitekeelakoan, 9 irudian, sistemaren arkitekturaren eskema ikus daiteke.



9 irudia: Gure sistemaren arkitektura

Argi uler daitekeenez, hiru modulu nagusi dauzka sistemak. Lehen modulua bertsoedo poesia-sorkuntza modulua da, non kantatuko duena "pentsatzen" duen. Hitz bat edo oinak jasota bertso bat itzultzen du. Hauxe da proiektu honetan nagusiki landu duguna. Bigarren moduluan, bertsoa kantatu egiten du, horretarako *Aholab*-eko ahoTTS modulu eraldatua erabilita. Azkenik, lan honen *performance*-a egiteko robotika lanak daude, bertsolari automatikoari giza-itxura eta giza-mugimenduak emateko.

Hiru modulu horien azalpen bat egiten da ondorengo hiru ataletan.

HAP masterra

4.1 Burmuina

Bi azpiataletan dago banatuta atal hau. Lehenik eta behin, sorkuntzarako oinarrizkoak diren corpusak nola antolatu ditugun azalduko da. Honen ondoren, bertsoak sortzeko bide ezberdinak erakutsiko ditugu.

4.1.1 Corpusen antolaketa

Lan honen garapenerako bi corpus ezberdin erabili ditugu. Lehenik eta behin, Xenpelar Dokumentazio Zentroak bildu eta sailkatutako bertso bilduma, Euskal Herrian egin diren bertsolari txapelketetako bertsoez osatua. Beste alde batetik, *Euskaldunon Egunkaria* euskarazko hedabidearen corpus bat ere eskura izan dugu eta erabili dugu[23]. Corpus bakoitzari erabilpen berezi bat eman zaio, eta horretarako egitura berezitu bat eman behar izan zaio.

Bertsoen corpusa, testu modura eskuratu eta haren XML bertsio bat sortu dugu, horretarako TEI5 etiketatze-araudi estandarra erabilita. Corpus honetan, bertsoen transkripzioekin batera, hainbat metadatu daude, hala nola, bertso-saioaren lekua eta data, saioaren informazioa, bertsoaldiaren egileak, burututako ariketa, etab..

10 irudian TEI5 araudia erabilita etiketatutako bertsoaldi bat dago. Bertsoak eskuz moztuta daude espazio gehiegi har ez dezaten.

*Euskaldunon Egunkaria*ren corpusari dagokionez, testu hutsezko corpusa oinarritzat hartuta, galbahe bat ezarri eta corpus berri bat sortu du Aitzolek. Silaba-kontatzaile automatiko batekin, corpuseko albisteetan ager zitezkeen silaba-egitura berezi batzuk erauzi ditu, 7 + 6 silabako egiturakoak hain zuzen (neurri txikien egitura). Egitura horiek erauzita eta bertsoen corpuseko zortziko txikiko estrofekin konbinatuta, 20.000 estrofa inguruko corpus bat lortu da.

Azpian zortziko txikiko corpusaren hamar lerroko lagin bat dago. Argi ikusten da 7 + 6 silabako egitura jarraitzen duela. Bertako azken hitza da bilatuko den oina.

```
Astea ez umore  ta ez pazientzi
zerbait merezi gendun  orren mutil finak
garizuman gaudenik  ez leike ahantzi
Buelta egin eta  bagatoz onuntza
Nere kolpea ez da  gaur izandu hutsa
Zerbait merezi zuan  neskatxa lirainak
probatu al dituzu  beraren ezpainak
Ederki gozatuaz  musu ta mingainak
nerbiuak pakean  ez didate utzi
Hola ibiltzen gera  batetik bestera
```

4.1.2 Bertso-sorkuntza lanak

Lan honetan bertso-sorkuntzari buruz aritzen garenean, bertsoen berreskurapenaz ari gara kasu gehienetan. Honekin esan nahi dena zera da, ez dugula hutsetik bertso zentzudunak

[23]Corpus honekin lortutako emaitzen meritu osoa Aitzol Astigarragarena da.

```
<Bertsoa trzenb='0'>
  <Kategoria>BAT-BATEKOA</Kategoria>
  <Saioa>2001-11-03 LESAKA TXAPELKETA</Saioa>
  <Gai-jartzailea></Gai-jartzailea>
  <edo-Gai-emailea>TABERNA-MIKEL</edo-Gai-emailea>
  <edo-Aurkezlea></edo-Aurkezlea>
  <Bertsolariak>IBARRA-IRATXE</Bertsolariak>
  <Gaia>Kristorenak eta bi pasatuta, patera zahar batean iritsi zinen ↙
     ↳ amesten zenuen lurraldera. Ailegatu eta segituan atxilotu ↙
     ↳ zintuzten. Orain, hegazkin dotore batean sartu eta berriz ere ↙
     ↳ zure lurraldera eramanen zaituzte.</Gaia>
  <Neurria>KLASIKOEN SAILA</Neurria>
  <Doinua>GAI HORREK BADU MAMIA</Doinua>
  <Lana>BAKARKA GAIA-EMANDA KARTZELAKO-LANA</Lana>
  <balorazioa-saioarena> Txapelketa Nagusia 2001. Final-laurdenetako ↙
     ↳ bost saiotatik laugarrena. Udal pilotalekuan, arratsaldeko ↙
     ↳ seiretan hasita, 450 bat entzule.
  </balorazioa-saioarena>
  <Bertsoaldiari-oharrak></Bertsoaldiari-oharrak>
  <Deskriptoreak> //  </Deskriptoreak>
  <Bertso-gaiburuak></Bertso-gaiburuak>
  <Gai-oharrak> </Gai-oharrak>
  <Argitaratua-Argitalpena></Argitaratua-Argitalpena>
  <Funtsa-Bilduma>Txapelketetako Bilduma</Funtsa-Bilduma>
  <Iturria>Xenpelar Dokumentazio Zentroa</Iturria>
  <Kokapena></Kokapena>
  <Transkribatzailea></Transkribatzailea>
  <Transkripzio-oharrak></Transkripzio-oharrak>
  <Izenbururako></Izenbururako>
  <Bertso-kopurua>2</Bertso-kopurua>
  <Transkripzioa>
    <lg zenb='1'> <!-- Line group: bertsoa-->
      <l>Panorama ona ez da</l> <!-- Line: lerroa-->
      <l>lurralde pobreena;</l>
      <l>bertan utzi nahi nituen</l>
      <l>hainbat kezka ta pena.</l>
      ...
    </lg>
    <lg zenb='2'>
      <l>Kaleetan barrena beti</l>
      <l>ume asko ortozik,</l>
      <l>eta gainera ez zen falta</l>
      <l>herrian ondoezik.</l>
      ...
    </lg>
  </Transkripzioa>
</Bertsoa>
```

10 irudia: TEI5 araudia erabilita etiketatutako bertso-transkripzio bat

sortzeko sistema bat garatu. Ariketa berezi batzuei bertso batzuekin erantzuteko gai den sistema bat egin dugu. Sortutako bertsoak, aurretik bertsolariek egindako bertsoak edo estrofa ezberdinak konbinatuta sortutako bertsoak izango dira orokorrean.

Aukera ezberdinak daude bertsoak berreskuratu edo bilatzeko. Batetik, bilaketa semantiko aurreratuak daude, non hitz bat bilatuta, bere lema eta senide semantikoen gainean ere bilaketak egiten diren. Bilaketa hauen inguruko datu gehiago 5.2 atalean ematen dira, aurrerago.

Baina bilaketa aurreratuetaz aparte, batzuetan interesgarriak izan daitezke string parekatze soilak. Adibidez, lau oinak emanda bertso bat itzultzea nahi denean. Oinen gainean bilaketak egiteko, 7 + 6 silabako estrofez osatutako corpusa erabili dugu, eta bertan, sei silabetako lerroan behar dugun oina bilatu (lerroko azken hitza).

Gerta daiteke oin batzuekin estrofarik ez topatzea. Hori gertatzen denean, bi estrategia ezberdin erabil daitezke; bertsorik ez kantatzea[24] edo edozein hitz edo soinurekin doinua kantatu eta bukaeran oina botatzea. Hona hemen bigarren irtenbidearen adibide bat:

la la la la la la la

la la kokakola

4.2 Kantuaren modulua

Jakina da bertsolaritza ahozko literaturaren adierazpen bat dela. Beraz, bertso-sorkuntza lanei kantatzeko gai den modulu bat gehitzea nahitaezkoa da. Horretarako, 3.1.4 atalean aipatutako bertso-abeslariaren modulua gehitu diogu, baina hori modu erdi-automatikoan erabili ahal izateko, hobekuntza nagusi bat egin behar izan diogu.

Orain artean, abeslariaren lana, laborategiko lan bat izan dela esan daiteke, izan ere, probatu ahal izateko zerbitzari batera konektatu eta script berezi batzuk exekutatu behar ziren. Une honetan, zerbitzari gisa erabil daiteke modulu hau web interfaze baten bidez[25], eta aukera dago gainera, *perl* bezalako programazio lengoaia baten bidez, bertso idatzi bat bidali eta *wav* fitxategi bat eskuratzeko. Hona hemen script horrek beharko zukeen oinarrizko zatia:

```
my $ua = LWP::UserAgent->new;
my $req = $ua->request(POST 'http://aholab.ehu.es/users/manex/abestu.php',
      Content_Type => 'form-data',
      Content => [
bertsoa => $bertsoa,
               melodia => $melodia[$zenb],
```

[24] Ostrukaren algoritmoa

[25] `http://aholab.ehu.es/users/manex`

```
                erritmoa => $erritmoa[$zenb],
                erritmoOsoa => '1',
                gizon => $ahotsa]);
my $url = 'http://aholab.ehu.es/users/manex/tmp/emaitza.wav';
my $fitx = 'bertsoa.wav';
getstore( $url, $fitx );
```

4.3 Robotikako lanak

Lanaren atal honek, dibertigarria dirudien arren, lan-ordu asko suposatu ditu. Robotikako arazo klasiko bat zera da; gauzak ez direla espero duzun bezala gertatzen gehienetan: izan ere, beti dago simulazio informatiko batean kontutan hartzen ez diren gauzak. Bertso-saio batean, adibidez, robotak aurrera eta atzera egin behar duenean, kable baten gainetik pasatzeak bere ibilbidea guztiz alda dezake.

Proiektu honen garapenerako, ez nuke eskertu gabe utzi nahi Elena Lazkano, Ekaitz Jauregi eta Aitzol Astigarragak egindako lan handia.

5 Inplementazioa

Proiektu honetan poesia-sorkuntza automatikoaren egoera aztertu eta ikertzeaz gain, poesia-sortzaile bat garatu da.

Inplementazio lanek bi zutabe nagusi izan dituzte bertso-sortzaile automatikorako bidean. Batetik, egoera finituko teknologia erabilita egindako garapenak daude. Bestetik informazioaren berreskurapena eta semantika bateratzen dituen lanak.

5.1 Egoera finituko teknologia bertsolaritzan

Hasieran aipatu dugun bezala, aurretik garatuta geneukan lan bat egoera finituko teknologia erabilita berrinplementatu dugu. "Bertsotarako arbel digitala" proiektuaren lanetako bat errima-egiaztatzaile baten garapena izan zen. Aurten, masterreko irakasgai baten barruan, errima-egiaztatzailea *foma* konpilatzailea (Hulden, 2009) erabilita garatu dugu.

PHP lengoaiaz garatutako bertsioaren oinarria silabizazioa zen. Bertan, bi hitzek errimatzeko bete beharreko gutxieneko baldintza honakoa zen: bi hitzen azken silabak hoskideak izan behar ziren. Honetaz gain, azken aurreko silabetako bokala berdina bazen, orduan errimaren kalitatea ona zen, bestela pobre xamarra, baina egokia. Errima-egiaztatzailea eta errima-bilatzailea modu independentean garatu genituen, eta horren ondorioz, bilatzailearen emaitzetan agertzen ziren hitz batzuk, ez ziren onargarriak egiaztatzailearen arabera.

Hori ekiditeko, errima-egiaztatzailean eta bilatzailean teknologia bera erabiltzea erabaki genuen eta une honetan horrela daukagu garatuta, egoera finituko teknologia erabilita.

Errima-egiaztatzaile berriaren oinarria errima-patroiak dira. Honen oinarrizko *script*-a 11 irudian ikus daiteke. Lehenik eta behin, sarrerako bi hitzen **(landa-ganba)** errima-patroia identifikatzen da, eta gainerako guztia ezabatu (`rhympat` erregela). Errima-patroiak erauzitakoan **(anda-anba)**, bertsotan erabiltzen diren erregela fonetikoak aplikatzen zaizkie hauei (`phoRules` erregela). Azken hauek, ordezkapen erregela batzuk dira eta sarrera gisa "p", "t" edo "k" letrak dituen zerbait jasoz gero, adibidez, "PTK" karaktere-katearekin ordezkatuko dugu **(<aNMBDGRa>-<aNMBDGRa>)**. Honi esker, hoskideak diren kontsonanteen abstrakzio bat egingo dugu. Amaitzeko, *foma*-n erabilgarri dagoen `_eq(X, Left, Right)` funtzioa erabiltzen da. Funtzio honek, X tranduktorea aplikatzen dio sarrerako *string*-ari. Emaitza horrek, *Left* eta *Right* elementuez (kasu honetan < eta >) bereizitako bi kate izango ditu, gure kasuan errima-patroi bakoitza. Horiek berdinak baldin badira, kate berbera itzuliko du, bestela ez du onartuko **(gure adibidean, aNMBDGRa agertzen denez alde bietan onartu egingo du)**. 12 irudian errima-egiaztatzailearen pausoen eskema bat ikus daiteke.

Bertsolaritzan orokorrean, silabak kontatzen eta errimak egiaztatzen nahiko filosofia

```
define rhympat1   [0:"{" ?* 0:"}"
  [[[V+ C+]  (V) V] | [(C) V V]] C* ];
# constraining V V C pattern
define rhympat2  ~[?* V "}" V C];
# cleaning non-rhyme part
define rhympat3  "{" ?* "}" -> 0;
define rhympat rhympat1 .o. rhympat2 .o.
  rhympat3;

# rhyming pattern on each word
# and phonological changes
define MarkPattern rhympat .o.
       phoRules  .o. patroiak;
# verifying if elements between < and >
# are equal
define   MarkTwoPatterns
    0:%< MarkPattern 0:%> %-
    0:%< MarkPattern 0:%> ;
define Verify  _eq(MarkTwoPatterns, %<, %>)
regex Verify .o. Clean;
```

```
## LETRA MULTZOAK
define bdgr [b|d|g|r];
define ptk [p|t|k];
define nm [n|m];
define szx [s|z|x];



##ERREGELA FONETIKOAK
define petaka ptk -> PTK;
define bodegara bdgr -> BDGR;
define nomo nm -> NM;
define txistukari szx -> SZX;
define rt r PTK | s PTK -> t || _ .#.;
define ts PTK -> 0 || _ SZX;

define phoRules petaka .o.
bodegara .o. nomo .o. txistukari .o.
rt .o. ts;
```

11 irudia: Errima-egiaztatzailea *foma* erabilita.

hertsia jarraitzen bada ere, badaude estrofetan behar baina silaba gehiago sartzeko teknikak. Teknika hauek poesia klasikoan erabilitakoak dira, hizkuntz ezberdinetan. Horietako bi aurkeztuko dira hemen, *foma* formalismoan tratatuak izan direnak (hauek ere orain artean PHP lengoaian tratatzen ziren).

Lehenik eta behin, sinalefak dauzkagu. Sinalefa bat hitz bat bokalez amaitzen denean eta hurrengoa bokalez (edo “h” mutuaz) hasten denean gertatzen da. Sinalefa bat egiteko bi hitzek bertsoko lerro berean egon behar dute, hau da, lerro bateko azken hitza bokalez amaitzen bada eta hurrengo lerroko lehena bokalez hasi, ezin da sinalefarik egin.

Honetaz aparte, [bokal + “h” + bokal] sinkopa patroia daukagu, betiere, bokalak berdinak badira. Patroi hori topatuz gero, bokal bat soilik uzteko aukera dago, eta ondorioz, bi silaba zeuden tokian bat bakarrik kontatzen da.

Aurretik esan bezala, hitzezko figura erretoriko hauek maila konputazionalean tratatuta zeuden PHP lengoaia erabilita. Ondorengo lerroetan *foma* bidez egindako inplementazioaren nondik norakoak emango ditugu.

Figura hauek hitzen silabizazioari eragiten diote, beraz, hau silabizazio arruntaren ondorengo atal bat izango da. Egoera finituko silaba-banatzaile arruntak hitz bat edo esaldi bat hartu eta silabetan banatzen du:

HAP masterra



12 irudia: Errima-egiaztatzailearen fluxuaren adibidea.



13 irudia: Silaba banatzaile sinplea

Bi figura erretoriko hauek kontrolatzeko, *foma*-ko silabizazio kodeari ondorengo lerro hauek txertatu behar izan dizkiogu.

```
define SPhSP " " (->) 0 || V _ V ;

define aha a "." h a (->) a ;
define ehe e "." h e (->) e ;
define ihi i "." h i (->) i ;
define oho o "." h o (->) o ;
define uhu u "." h u (->) u ;
define vhv aha .o. ehe .o. ihi .o. oho .o. uhu ;

define flex vhv .o. SPhSP ;
```

Argi ikus daitekeenez, `SPhSP` transduktoreak hutsunea kentzen du, alde bietako hitzek bokalez inguratzen badute. Hau da, “etxera etorri” hitza sartuko bagenu, hutsunea ken-

duko luke. `vhv`-ren kasuan, [bokal + "h" + bokal] patroia bilatzen du, betiere, bokalak berdinak izanik, eta hau bokal sinple batekin ordezkatzen du.

Bi transduktore hauek, baina, badute berezitasun bat: ordezkapen sinboloa hautazkoa da [`(->)`]. Honekin zera esan nahi da, hautazkoa dela malgutasun teknika aplikatzea. Horri esker, esaldi baten silabizazioa eskatzean sistemari, aukera posible guztiak itzuliko dizkigu honek:



14 irudia: Silaba banatzailea malgutasunarekin

5.2 Bilatzaile semantikoa

Arantxa Otegiren lanari jarraiki (Otegi, 2012), informazioaren berreskurapeneko[26] teknika berritzaileenak erabilita, bilatzaile semantiko bat garatu dugu. Honi esker, hitz bat gaitzat emanda, bertso batekin erantzuteko aukera izan dugu.

Baina nola jakin zein den hitz horri hobekien egokitzen zaion bertsoa? Bertsoen corpus bat dugu eskura, beraz, bilaketak horren gainean egin ditzakegu. Baina zein bilaketa litzateke egokiena? Suposa dezagun "bizikleta" hitzaren inguruko bertsoak bilatu nahi ditugula. Maila baxueneko bilaketak, bertsoetan "bizikleta" *string*-a bilatuko luke. Kasu horretan, agian zerbait topa dezakegu, baina imajinatu bertso batean honako estrofa hau dagoela:

Atzo ibili ginen lagunak
etxeko bizikletekin

Bertso hori berreskuratzea interesgarria izan daitekeen arren, ***string*-en parekatze soilak** erabiltzen baditugu ezingo dugu horrelako bertsorik topatu. Beraz, estaldura hobetzeko, bertsoen gainean bilaketak egitean, bertsoko hitzen **lemen gainean** ere egingo dira bilaketa horiek. Bigarren kasu hipotetiko batean, pentsa bertso baten amaierak hau dioela:

[26] Information Retrieval

gogoan daukat lehen aldia
txirrinduaren gainean

Kasu honetan ere, oso erlazionatua dago “bizikleta” hitzarekin. Baina, karaktere-kateak ezberdinak direnez bertso hau ezingo genuke berreskuratu. Zer egin daiteke bertso hau itzultzeko? Euskal Wordnet bezalako ezagutza-base lexikal bat (Pociello, 2008) erabilita, bertsoko lemen sinonimoak, hiperonimoak, hiponimoak, etab. lortuko ditugu (**hedapen semantikoak**), eta gero horien gainean ere bilaketak egin.

Bilaketak azkarrak izan daitezen, bertsoetako hitzak, hitzen lemak eta haien hedapen semantikoak indexatu egin ditugu. Lematizazioak, hedapen semantiko guztiak eta indexatzeak egiteko, **Arantxa Otegi**k bere doktorego-tesirako garatutako *script* batzuk erabili ditugu. Horiei aldaketa txiki batzuk eginda, bertsoen berreskurapenerako erabiltzea lan erraza izan da. 5.2 irudian informazio-berreskurapeneko tresnen egitura nagusia ageri da, baina bertsolaritzaren inguruko adibide batekin.



15 irudia: Bertsoen bilatzaile semantikoaren egitura

Dokumentuen indexatzea hiru pausotan egiten da. Lehenengo pausoan indexatu beharreko dokumentu zerrenda eskuratzen da.

```
find bertsoenDirektorioa -type f > bertsoFitxZerrenda.files
```

Behin dokumentu zerrenda hau dugula, berau `collection` motako fitxategi batean sartzeko ordua da. Pauso honetan dokumentuek izango duten egitura ere definitu egin

behar da. Hori definitzeko *mg4j* sistemak `myFactory` izeneko klase bat dauka. Badaude, horretaz gain, aurredefinitutako klase batzuk, `HtmlDocumentFactory`, adibidez. Gure dokumentuek, zazpi eremutako egitura bat daukate. Hona hemen eremu bakoitzean gordetzen den informazioa:

- 0. eremua: Bertsoaldiaren identifikadorea, bilduma eta zenbaki bat. Adibidez, 86_1 ("Bapatean 86" bilduma eta 1 zenbakidun bertsoa).
- 1. eremua: Bertsoaldiaren gaia
- 2. eremua: Bertsoaldiaren transkripzioa
- 3. eremua: Bertsoaldiaren gaiaren lemak
- 4. eremua: Bertsoaldiaren transkripzioaren lemak
- 5. eremua: Bertsoaldiaren gaiaren hedapen semantikoak
- 6. eremua: Bertsoaldiaren transkripzioaren hedapen semantikoak

Ondorengo aginduak dokumentu zerrenda bat (`bertsoFitxZerrenda.files`) eta hauen egitura (`myFactory`) eskuratu eta `collection` motako fitxategi bat (`bilduma.collection`) itzultzen du.

```
java it.unimi.dsi.mg4j.document.FileSetDocumentCollection -f myFactory
-p encoding=UTF-8 bilduma.collection < bertsoFitxZerrenda.files
```

Azkenik, bilatzaileak modu azkarrean aurkitu ahal izateko, indizea sortzeko ordua da. Horretarako, `IndexBuilder` klasea erabili behar da eta honi, honako datu hauek adierazi behar zaizkio: indexatuko diren eremuak, `collection` fitxategia eta gordeko den indizearen oinarrizko izena.

```
java -Xmx2058M it.unimi.dsi.mg4j.tool.IndexBuilder --downcase
-I f0 -I f1 -I f2 -I f3 -I f4 -I f5 -I f6 -s 10000 -S bilduma.collection
indize
```

Behin dokumentuak indexatuta ditugunean bilaketak egitea besterik ez zaitu geratzen. Horretarako, *mg4j*-ko `Query` klasea erabili behar da. Honi esker, bilatzaile semantikoa martxan jartzen da eta web bidez edo terminal bidez egin daitezke kontsultak.

```
java it.unimi.dsi.mg4j.query.Query -h -i FileSystemItem -c bilduma.collection
indize-f1 indize-f2 indize-f3 indize-f4 indize-f5 indize-f6
```

HAP masterra

Ebaluazioa

Informazio-berreskurapenaren inguruan, modu ezberdinak daude bilatzaileak ebaluatzeko. Guk, bilatzailearen doitasuna neurtu dugu, honetarako bi neurri ezberdin erabili ditugularik:

Precision at N

Bilaketaren lehen N emaitzak hartu eta esanguratsuak diren ala ez ikusi. Horren arabera, puntuazio bat emango zaiolarik:

$$Precision\ at\ N = \frac{\sum_{pos=1}^{N}(esanguratsu(pos))}{N};$$

esanguratsu(pos) funtzioak 1 edo 0 itzuliko du, berreskuratutako dokumentua esanguratsua den ala ez. Berreskuratutako dokumentu kopurua finkatutako N zenbakia baina baxuagoa bada, N berreskuratutako dokumentu kopurua izango da.

Gure ebaluazioetarako, berreskuratutako lehen 5 dokumentuak erabiliko ditugu.

Average Precision

AP neurriak, berreskuratutako dokumentu adierazgarri guztien posizioei dagokien doitasunaren batezbestekoa kalkulatzen du (Otegi, 2012, 66 orr.). Neurri hau erabiltzea interesgarria da gure bilaketa-motoreak (*mg4j*) emaitzak *ranking* batean ordenatzen dituelako emaitzak eta neurri honek *ranking* hori ere kontutan hartzen du. Kasu honetan ere, lehen bost emaitzak bakarrik izan ditugu kontuan gure ebaluazioan.

$$AP = \frac{\sum_{pos=1}^{N}(P@pos \times adierazgarri(pos))}{dokumentu\_adierazgarrien\_kopurua}$$

Ebaluazioa egiterako orduan, berau garatzailea ez den norbaitek egitea ezinbestekoa da, beraz, horretarako, Bertol Arrietaren laguntza izan dugu. Bertolek 24 bilaketa termino prestatu ditu eta gero lehen bost emaitzen esangura ebaluatu. Hauetaz aparte, bi hitz edo gehiagoz osatutako bilaketa-termino batzuk ere bilatu ditu. Ondorengo taulan daude ebaluazioaren emaitzak:

Hitz kop.	Test kop.	Pr. at 5	MAP
1	24	0.7625	0.3813
2	12	0.5166	0.3336
3	5	0.1333	0.0889

HAP masterra

Oraintxe aipatu bezala, hitz bateko 24 bilaketa egin ditu Bertolek bilatzaile semantikoan. Argi erakusten dute emaitzek, batez ere *Precision at 5* neurrikoek, hitz bat baino gehiagoz osatutako bilaketa terminoekin emaitza kaxkarragoak lortzen direla. Aipatzekoa da baita bilatutako hitzen kategoria: izen arruntak, adjektiboak eta aditzak. Orokorrean izenekin emaitza hobeak ematen ditu, gehienbat Euskal WordNet-en aditz eta adjektiboak baino gehiago daudelako.

6 BertsoBOT: Zer egiteko gai da?

BertsoBOT da bertsotan egin dezakeen sistemaren izena. BertsoBOT, sarrera ezberdinak jasota, pertsonekin bertsoen bidez komunikatzeko gai da.

Bere jarduna, hainbat mailatan erakuts daiteke. Ondorengo azpiataletan, bere gaitasunak deskribatuko dira, maila baxuenetik altuenera:

6.1 Memoria hutseko lana: bertso klasikoa

Lehen maila, memoria hutseko lana da. Kasu honetan, hainbat bertso klasikoz osatutako datu-base bat dauka sistemak. Bertso bat kantatzeko eskatzen zaionean, bere kutxa sinple honetatik bertso bat ausaz atera eta hau kantatzen du, besterik gabe. Bertso-sorkuntza mailan, honek ez du inolako meriturik, lehendik sortutako bertso bat aukeratu eta kantatu egiten duelako, inongo aukeraketa irizpiderik gabe.

Ariketa hau egiteko, perl programazio-lengoaia erabilita, interfaze grafiko bat garatu genuen. Interfaze hau informatika fakultatean egin zen FLLXpress lehiaketan erabili zen, Tartalo robotarekin. 16 irudian programaren leiho nagusia ikus daiteke, non erabiltzaileak bertsolari bat aukeratu behar duen. Behin hori aukeratuta, haren errepertorioko bertso bat ausaz kantatzen dut robotak.



16 irudia: Bertso klasikoen ariketa egiteko sortutako interfazea.

6.2 Corpusen gaineko bilaketa arrunta: lau oinak emanda

Bigarren maila honetan, bilaketa arruntak erabiltzen ditu bere jarduna burutzeko. Bilaketa sinple hauei esker, lau oinak jasota, estrofez osatutako corpusean bilaketak egiten ditu. Oin

horiei dagozkien estrofak uztartu eta bertso bat itzultzen du.

Kasu honetan, bertso-sorkuntza lan bat egiten da. Lau hitz emanda, oin horiek errespetatzen dituen bertso bat lortzen da. 4.1.2 atalean azaltzen den bezala, posible da oin batekin estrofarik ez aurkitzea. Hori gertatuz gero, "la" silabez betetzen da estrofa eta bertsoBOT-ek bertsoa botatzen du.

Aurreko ariketarekin bezala, honentzako ere interfaze grafiko bat inplementatu genuen, FLLXpress lehiaketaren aitzakiarekin. 17 irudian ikus daiteke lau oinak idazteko leihoa eta bertan agertzen den "Bota bertsoa!" botoia sakatuta, bertsoa kantatzen du Tartalok.



17 irudia: Oinak emanda bertsoa kantatzeko sortutako interfazea.

6.3 Corpusen gaineko bilaketa adimenduna: hitza emanda

Bilaketa adimenduna egiteko, 5.2 atalean azaldutako bilatzaile semantikoa erabili da. Lehenago esan bezala, honi esker, hitz bat emanda, sistema bertso bat itzultzeko gai da. Beraz, bertso-saioetan ohikoa den gai bati erantzuteko prest dagoela esan genezake. Ebaluazioaren atalean, bilatzaile semantikoaren beraren ebaluazio bat ere aipatzen da, beharrezkoa ikusi baita hau bere horretan ebaluatzea.

Bilatzaile semantikoak, *mg4j* bilaketa motorea erabiltzen du. Arantxa Otegik prestatutako kodetik abiatu gara. Kasu batzuetan *java* kodeari aldaketa txiki batzuk ere egin behar izan dizkiogu, terminal bidez berreskuratutako bertsoak jaso ahal izateko, adibidez.

6.4 Bertso-sorkuntza automatikoa: bertsoa gai librean

BertsoBOT-ek burutu dezakeen azken ariketa hau, oraindik esperimentala da. Egia da bertso-sorkuntza egiten duela, hau da, gai librean, unean uneko bertso bat botatzeko gai

